



## **A m o r o t o k o U d a l a**

Elexalde Auzoa, 1  
48289 Amoroto (Bizkaia)  
Tel: 946842549 - Fax: 946243704  
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org  
Web: www.amoroto.net

### **10/04 AKTA**

#### **2004KO AZAROAREN 17AN EGINDAKO BATZARRA**

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lau azaroaren hamazazpian, gaueko bederatzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea, funtzioetan, buru dela.

#### ***Bertaratuak:***

*Zinegotziak:* Ramon Abaroa Iturran  
Bitor Mari Gabiola Leniz  
Sorkunde Gabiola Zabala  
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea  
Jon Laka Telleria  
Alexander Arrillaga Laka  
*Idazkaria:* Miren Begoña Laka Ortuondo

#### ***Bertaratu ez direnak:***

Ainara Ikaran Zugazaga  
Igor Gabiola Antxustegi

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

#### **1.- ZINEGOTZI BERRIEN JABETZA HARTZEA.-**

Idazkariak azaldu du heldu direla Jon Laka Telleria eta Alexander Arrillaga Laka jaunei dagozkien kredentzialak. Beraien arabera, aipatuak Amorotoko zinegotzi izendatu ditu Hauteskunde-Batzorde Zentralak, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga eta Pedro M<sup>a</sup> Arriaga Meabebasterretxea zinegotzi jaunandreen errenuntzien ondorioz. Zinegotzi berrien kredentzialak eta bere nortasuna egiaztatu dira. Halaber, legeak agindutako bateraezintasun arrazoen, jardueren eta ondare ondasunen aitortpenak aurkeztu dituzte.

Jarraian, beraz, Jon Laka Telleria eta Alexander Arrillaga Laka jaunek zinegotzi karguen jabetza hartu dute.

#### **2.- ALKATE BERRIAREN AUKERAKETA.-**

Maribi Ugarteburu Markuerkiaga andreak alkate kargua utzi duenez, udalerriko alkate berria aukeratzeari ekin behar zaio, hautagai bakarra Victor Maria Gabiola Leniz jauna delarik.

Bertaratutako zinegotziek isilpeko bozketa egin dute eta emandako botuak kontatu ondoren, honako emaitza lortu da:

Victor Maria Gabiola Leniz jauna, bost (5) botu.

Botu zuriak: Bat ere ez.

Botu baliogabeak: Bat ere ez.

Lortutako emaitzaren arabera, Victor Maria Gabiola Leniz jauna aldarrikatzen da alkate.

Aukeratu berriak adierazi du, Korporazioaren aurrean, kargua onartzen duela.

### **3.- ALKATE-ORDEAREN IZENDAPENA.-**

Udalbatzaren ezagutzarako azaldu du alkate jaunak, une honetan erabaki duela 03/2004 Alkate-Dekretuaren bitartez, Alexander Arrillaga Laka zinegotzi jauna izendatzea alkate-orde bezala.

### **4.- UDAL DIRUEN GORDAILUZAINA IZENDATZEA.-**

Udalbatzak aho batez erabaki du Alexander Arrillaga Laka zinegotzi jauna udal gordailuzain izendatzea.

### **5.- LEA IBARREKO UDAL MANKOMUNAZGOKO GOBERNU BATZORDERAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA.-**

Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoko Estatutuen 8. artikularen arabera, Mankomunazgoko Gobernu Batzorderako Udal bakoitzaren ordezkariak, alkate-udalburua eta Udalak bere gorporazio-kideen artean izendatutako ordezkari bat izan behar direla, jakinarazi du Idazkariak. Era berean, ordezeko bat izendatu behar da.

Aurrekoa ikusirik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Victor M<sup>a</sup> Gabiola Leniz Alkate jauna eta Ramon Abaroa Iturraran jauna izendatzea Amorotoko Udaleko ordezkari Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoko Gobernu Batzorderako eta Igor Gabiola Antxustegi izendatzea ordezeko.

### **6.- LEARRI, S.A.RAKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA.-**

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) "Learri, S.A." sozietateko administrazio kontseilurako, eta beste batzuren artean, udal honetako alkatea den Victor M<sup>a</sup> Gabiola Leniz eta zinegotzia den Ramon Abaroa Iturraran jauna izendatzea.

2) Alkatea den Victor Maria Gabiola Leniz jauna (NAN 14.214.986-C) ahalmentzea Amorotoko Udalaren izenean karguak onar ditzan eta beharrezko ikusten dituen ordezkari legalak –pertsone fisikoak- izenda dezan. Baitere ahalmentzea aipatu alkatea, bai notaritzan bai bestelako edozein erakunde publiko edo pribatuetan agertaraziz, egoki diren gestioak egin ditzan burututako aldaketak beharrezko erregistroetan inskribatuak izan arte.

### **7.- ANGEL GEZURAGA ETA M<sup>a</sup> VICTORIA LENIZ JAUNANDREEI, EGOKI BADA, OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.-**

Domingo Goitia Barainca, Industri-Ingeniari jaunak idatzitako proiektuaren arabera egiteko, Angel Gezuraga Azkarate eta M<sup>a</sup> Victoria Leniz Zabaleta jaunandreak Elexalde auzoan, Leizko baserriaren jabetzako lursailean, nekazal biltegi bat eraikitzeke eskatutako obretarako udal baimena emateko bideratutako espedientea ikusirik.

Ikusirik, halaber, Jesus Angel Landia Uribe udal arkitekto aholkulari jaunak emandako txostena.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Angel Gezuraga Azkarate eta M<sup>a</sup> Victoria Leniz Zabaleta jaunandreei obretarako udal baimena ematea nekazal biltegi bat eraikitzeke, ondoren adierazten diren baldintzapean:

1) Obrak Udal honetan aurkeztutako eta espedientean agertzen den memoria baloratuari guztiz egokitu beharko dira. Lizentziaren baldintzetatik kanpo gelditzen den edozein aldaketa urratse zigorgarria izango da eta dagokion legeztatze espedientea eskatu ahal izango zaio.

Lizentzia honetako edozein baldintza ez betetzea zigortua izan daiteke, bai isun bat jarriz bai obrak geldituz, Udalbatzak erabakitzen duenaren arabera.

3) Erabilera baimendu bakarrak nekazal edo abeltzaintzako erabilerak izango dira, beste edozein erabilera debekatua gelditzen delarik.

Dena dela, abereak biltegian eduki ahal izateko ur zikinen depurazio sistema bat instalatu beharko litzateke (fosa septikoa eta "zanja filtrante") eta aurretiaz baimena eskatu udaletxean.

4) Eraikuntza proiektuan aipatutako 10.000m<sup>2</sup>ko lursailari lotuta egongo da.

5) Ukitzen dion indarreango legeria guztia bete beharko da, bereziki laneko osasun eta segurtasunari buruzkoak.

6) Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

7) Obrak bukatu eta gero, Udaletxean parte eman beharko dute, udal zerbitzu teknikoek inspektzioa egin dezaten. Eskaerarekin batera obren amaierako ziurtagiria eta likidazioaren laburpena aurkeztu beharko dira, obren zuzendaritzako teknikoei dagokien Elkargo profesionalak bisaturik.

8) Baimen hau beste Administrazio edo Erakundeen eskumenen kalterik gabe, jabekuntza eskubidea salbu eta hirugarrenen kalterik gabe ematen da.

## **8.- LEHEN OKUPAZIORAKO HIRIGINTZ BAIMEN ESKAERA.-**

Victor Maria Gabiola Leniz eta Gaizka Gabiola Uberuaga jaunek Ugaran auzoko Kostatza baserriaren etxebizitza bietarako lehen okupaziorako hirigintz baimena eskatu dute.

Kontuan izanik eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta udal arkitekto aholkulariaren txostena, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Ugaran auzoko Kostatza baserriaren etxebizitza bien lehen okupaziorako baimena ematea.

## **9.- EUSKO JAURLARITZAKO UREN ZUZENDARITZAK ESKATUTAKO TXOSTENA.-**

Idazkariak azaldu du, Oletan Artin-Errota eraikina berreraikitzeke Pedro M<sup>a</sup> Arriaga jaunak egindako eskaerari buruz, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak udal txostena eskatu duela.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du.

Txosten faboragarria ematea Oletan Artin-Errota eraikina berreraikitzeari buruz.

## **10.- UDAL PERTSONALAREN 2004 URTEKO LAN BALDINTZEI BURUZKO AKORDIOA.-**

Udal langileei dagokien lan baldintzei buruzko akordio bateraturik ez da lortu aurten eta proposamen desberdinak jaso dira EUDELetik eta sindikatuetatik. Gainera, erakunde batzuetan hartutako akordioak ere hor daude.

Kontutan izanik ere, Lea Ibarreko Mankomunazgo mailan hartutako erabakia, Udalbatzak aho batez erabaki du:

2004 urterako ordainsariei dagokienez, 100 € lineal eta %3,2ko igoera ezartzea 2004ko urtarrilaren 1eko atzerakotasunarekin.

Gainontzeko lan baldintzak lehen bezala geratuko dira.

## **11.- PROBISA TECNOLOGIA Y CONSTRUCCION, S.A. ENPRESARI FIDANTZA ITZULTZEA.-**

"Errotabarri eta Telleriako bideen egokitzea. 2002ko kanpaina" proiektuko obren garrantia epea bukatu, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Kontratua bukatuenez Probisa Tecnología y Construcción, S.A. enpresa adjudikatzaileari eskatzeko erantzukizunik ez dagoelarik, "Errotabarri eta Telleriako bideen egokitzea. 2002ko kanpaina" proiektuko obren exekuziorako kontratua betetzeko eginkizunak bermatzeko enpresa horrek jarritako fidantza itzultzea, bere zenbatekoa 1.767,73 eurotako delarik.

2) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea Probisa Tecnología y Construcción, S.A. enpresari fidantza itzultzeko espedienteari hasiera eman zaiola, hamabost

eguneko epean bermatutako kontratuari buruz adjudikatzailari exijitzeko eskubideren bat dutela uste dutenek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten.

## **12.- KOSTATZAKO BIDEAREN EGOKITZEA, 2004KO KANPAINA, OBREN OBRA ZIURTAGIRI OSAGARRIA, EGOKI BADA, ONARTZEA.-**

Nestor Lejarreta obren zuzendari jaunak luzatutako "Kostatzako bidearen egokitzea, 2004ko kanpaina" obren obra- ziurtagiri osagarriaren berri eman da. Bere zenbatekoa 2.987,40 eurotako da eta Udaltzako aho batez erabaki du:

1) "Kostatzako bidearen egokitzea, 2004ko kanpaina" obren obra-ziurtagiri osagarria onartzea. Bere zenbatekoa BI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (2.987,40 €) da.

2) Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari 1499/2003 zenbakidun Foru Agindua bidez emandako dirulaguntzaren gerakina edo remanentea ordaintzeko eskatzea.

## **13.- DURANGO ESKUALDEKO HILTEGI ZERBITZUA BERTAN BEHERA UZTEARI BURUZKO AKORDIOA.-**

Durango Eskualde Hiltegiko Mankomunitateko lehendakariak bidalitako idatzian, 2004ko urriaren 20an mankomunitateko batzar orokorrak hartutako akordio berrestea eskatu du. Akordio horren bidez erabaki zen hiltegiaren zerbitzu publikoa bertan behera uztea eta mankomunitatearen disoluzioa. Erabaki honek ondorioak izateko, mankomunitateko udaletxeen gehiengoak berretsi behar du, zinegotzien gehiengo osoarekin.

Gai honi buruz, EHNE sindikatutik heldutako proposamena aztertu da, hitzez-hitz honela diolarik:

*"Iragan urriaren 20an Durangoko Hiltegiaren Mankomunitatearen batzar orokorra egin zen. Batzar horretan udaletxeetako ordezkariak gehiengoarekin Hiltegi Komarkalaren zerbitzu publikoa bertan behera uztea erabaki zen, hala nola Durango Arloko Herrialdeen Mankomunitatearen disoluzioa Hiltegi Komarkalaren gestioa eramateko. Behin erabaki hau hartuta berau mankomunitateko Udaletxeen gehiengoak berretsi behar du, zinegotzien gehiengo osoaren quorum-arekin.*

*Urriaren 20an egin zen batzar orokorrean EHNEk, Bizkaiko Harakinen Elkartearekin batera udaltxeetako ordezkariak proposamen bat luzatu zion aipatuz, momentu honetan haragi sektorearen egoera nahiko nahasia zela Durangoko Hiltegia istearen bueltaezinezko erabakiak hartzeko.*

*EHNEk erreflexiorako eta udaletxeek arduratsu izateko deia luzatzen du, izan ere kalitateko haragia ekoiztea helburu duten ustiategi ugariaren eta denda txiki askoren etorkizuna egun Durangoko Hiltegiak ematen duen zerbitzuaren menpe baitaude.*

*Hiltegiaren bapateko itxiera batek ekoizle sektorean eragin ditzaken ondorioak oso larriak izan baitaitezke. Guztiok ezagutzen duzue elkarte berri baten sorrera (GUROKELA SL), hau gehienbat abeltzainak osatzen dute Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailaren laguntzarekin, eta hau da hain zuzen ere Durangoko Hiltegiaren itxierarako erabiltzen ari diren argudio nagusia.*

*Egia esan, egun GUROKELA proiektu ahula da. Hasieran bertan izena eman duten abeltzainak oso gutxi dira eta ez da inondik inora zeukaten helburura iristen. EHNEtik udaltxeetako ordezkariak euren herriko abeltzainei eta harakinei galdera hau egiteko gonbidapena luzatzen diegu; Ze iritzi dute proiektuari buruz?, Nola lan egiten ari dira proiektua aurrera daramatenak?, Ze ondorio dauzka sektorean?, Zenbat apuntatu dira?, etab. Ez daukagu inolako zalantzarik erantzunak EHNEren ildokoetatik joango direla.*

*Beste alde batetik, GUROKELA Zorroako Hiltegiaren gestioa egiteko lehiaketa publikora aurkezteko asmoa dauka. Esan aipatu prozesua atzeratzen ari dela eta gutxienez 2005. udara arte luzatuko da. Bestalde, kontutan haru behar da GUROKELA ez dela Zorroako Hiltegiaren gestioa aurrera eramateko interesa duen bakarra. Lehiaketara aurkeztuko diren eta sakrifizioaren sektorean erlazioa eta esperientzia daukaten beste hiru elkarte ezagutzen ditugu.*

*Baita ere gaurko egunean Foru Aldundiak eta Aurrezki Kutxak GUROKELAn ez dutela parte hartuko ia ziur dago. Hau da dagoen errealitatea eta Durangoko Hiltegia istearen erabaki larria hartzea elkarte honen sorreran argudiatuz zentzugabea da.*

*Mankomunitateen Batzar Orokorren erabakiaren berrespenari begira, EHNEK udaletxei euren herriko batzarretan ondorengo onartu dezaten proposatzen die:*

- 1. Mankomunitateko Batzarreko erabakiaren berrespena bertan behera utzi sektorean dagoen egoera nahasia argitu arte eta euren herrietako abeltzain eta harakinak guztiz desanparatuta gelditzen ez direla baieztatu arte.**
- 2. Erreflesio prozesu bat ireki Durangoko Hiltegiaren etorkizunak eduki ditzakeen aukera ezberdinak ikertzeko.**
- 3. Akordio hau Durangoko Hiltegiko Mankomunitateko organo erabakigarriei jakin arazi."**

Gaia sakonki aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez eta zinegotzien gehiengo osoaren quorumarekin, erabaki du EHNEren proposamena onartzea eta beraz:

1) Durangoko Hiltegiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak 2004ko urriaren 20an hartutako erabakiaren berrespena bertan behera uztea sektorean dagoen egoera nahasia argitu arte eta euren herrietako abeltzain eta harakinak guztiz desanparatuta gelditzen ez direla baieztatu arte.

2) Erreflesio prozesu bat ireki Durangoko Hiltegiaren etorkizunak eduki ditzakeen aukera ezberdinak ikertzeko.

2) Durangoko Hiltegiko Mankomunitateari jakinaraztea erabaki hau.

#### **14.- UDAL SARETIK UREN TOMA BAT EGITEKO LEARRI, S.A.K AURKEZTUTAKO ESKAERA.-**

Eleizalde I exekuzio unitatean udal promozioko zortzi etxebizitzaren eraikuntza obren erabilerarako, udal saretik uren toma bat egiteko udal baimena eskatuz, Learri, S.A. enpresa publikoak aurkeztutako eskaeraren berri eman ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Udal ur saretik toma bat egiteko udal baimena ematea, aurretiaz toma eskubidegaitik 90,15 euro ordaindu beharko dituelarik. Uren toma udal zerbitzu teknikoak esaten duen tokian egin beharko da; eta udaletik azaldutako espezifikazio teknikoekin (materialak,...).

Ur toma hau behin behinekoa izango da, obrak dirauten bitartean. Zortzi etxebizitzaren eraikuntza bukatzen denean, etxebizitza bakoitzarentzat toma berri bate eskatu beharko da.

#### **15.- GASTUAK.-**

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- Angel Bermeosolori, 309,00 €.
- Jabi Navarriori, 116,19 €.
- Jaioren faktura, 6,09 €.
- Construcciones Ogella, S.L.ren faktura, 994,49 €.
- Canonen faktura, 38,13 €.
- Ekainen faktura, 464,00 €.
- Joseba Andoni Amutxastegi Gabiolari, 457,57 €.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamaikak eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.